

## 1- IKUSI AURRETIK

### 1.1 Tokitan bizi da!



#### Erantzun galderei

1. Kanpoan (atzerrian) bizi izan zara inoiz? Zergatik?

- lanagatik
- ikasketengatik
- krisiagatik
- maitasunagatik...

2. Zure familiako norbait / zure lagunena bat joan da kanpora bizi izatera? Zer dela eta?

- ikastera
- lan egitera
- bere familia hara joan delako
- kanpotar batekin maitemindu delako...

3. Askotan (maiz) etorri izan zara etxera?

- Oso maiz. Astebururo
- Hilean behin edo
- Oporretan bakarrik
- Aukera izan dudana guztietan




4. Joan izan zara zure kanpoko lagunak bisitatzerako?

- Bai, askotan
- Ez, inoiz ez
- Bai, baina gutxitan

#### Komentatu erantzunak lagunarekin.

- *Ni bi urtez bizi izan naiz Bartzelonan ikasketengatik.*
- *Maiz etortzen zinen?*
- *Ez. Oporretan bakarrik.*

## 1.2 Gelan badago norbait...

   Komentatu erantzunak lagunarekin eta osatu denon artean informazio hau. Gelan badago norbait lana/krisia/ikasketak edo beste arrazoi batengatik etorri dena? edo joan dena? Jarri izenak.

	LANA	KRISIA	IKASKETAK	Besterik...
JOAN				
ETORRI				

## 2- IKUSI BITARTEAN



   2.1 Oporrak

2.1.1 Ikusi bideoaren lehen zatia (lehen 33 segundoak).

Zer gertatzen zaio Josuri oporrekin?

- Pozik dago oporrekin
- Oporrik gabe geratu da Lide
- Lide ez da etorriko Josu ikustera

## 2.1.2 Ikusi bideoaren bigarren zatia.



Amaiak hasiera-hasieratik konbentzitu du Josu?

Bai

Ez: pixkanaka konbentzitu du.



2.2 Amaiak Josu konbentzitu nahi du.

**Irakurri aurretik galderak. Ikusi bideoaren bigarren zatia berriro.**

Zein problema du Josuk Liderekin?

- Irailean ikusiko du Lide: berandu.
- Lide ez da sekula bueltatuko.
- Lide ez da inoiz etorri Oslotik Euskal Herrira.

Zein dago lanpetuta?

- Josu
- Lide
- Josu eta Lide

Lide gabe, nola sentitzen da Josu? (Jarri hitz gako bat, ez derrigor bideoko hitz edo esaldi bera)

-----

Zer uste du Amaiak Josu eta Lideren harremanaz?:

- “Josuk ez du Lide maite”.
- “Oso harreman serioa da”.
- “Lidek ez du Josu maite”.



**Adostu erantzunak lagun batekin. (ikusi berriro bideoa, azpituluekin, nahi baduzu)**

### 3- IKUSI ONDOREN

#### 3.1 Hizkuntzan arreta



##### Proposamenak egiten:

- *Ba zoazte zuek bihar* = ( Ba joan zuek bihar)
- *Ba zatoz hona* = (Ba etorri zu hona)
- *Ba zoaz etxera* = (Ba joan zu etxera)

##### Proposamenei erantzuten:

- *Hara, ze ideia ona!*
- *Agian arrazoi duzu!*
- *Benetan ari zara?*
- *Ze ideia txarra!*

#### 3.2 Proposamena aurkitzen! Eta erreakzioa.

#### Non dago proposamena bi elkarrizketa hauetan? Zein da Josuren erreakzioa?

1.

**JOSU.**— Lide Oslon ari da ikasten, irailean joan zen, eta ez da bueltatu. Oso gustura egongo da han.

**AMAIA.**— Eta? Non dago arazoa?

**JOSU.**— Ba hitz egin genuen Aste Santuan elkartzeko, baina orain esan dit ezin dela etorri, lan handia daukala.

**AMAIA.**— Ba zoaz zu!

**JOSU.**— Hara! Ez da ideia txarra.

2.

**AMAIA.**— Josu, Lide ikusi nahi duzu?

**JOSU.**— Bai, horixe, 6 hilabete elkar ikusi gabe asko da.

**AMAIA.**— Ba zoaz, zoaz Oslora!

**JOSU.**— Agian arrazoa daukazu. Oso gogorra da horrela bizitzea: bera han eta ni hemen...

### 3.3 Zoaz atzerrira



**Bikoteka**

Urruti bizi den norbait bisitatu nahi du zure lagun batek, baina ez dauka oso garbi zer egin, joateko eta ez joateko arrazoiak ere baditu. Animatu eta proposatu noiz eta nola joan bisitan.

Adibidez:

Urruti bizi den pertsona: 2 urteko iloba. Helsinkin bizi da.  
Noiz joatea proposatuko diozu: Maiatzeko zubian.  
Zure lagunak ez joateko duen arrazoia: Oso urruti dago Helsinki.

**Proposamena:**

- Ezagutu nahi duzu iloba txikia?
- Bai, baina Helsinki urrun dago!
- Zoaz maiatzeko zubian...
- *Ez da ideia txarra.*



**Komentatu taldean. Zein izan dira bururatu zaizkizuen proposamenak? Zein izan dira (ez) joateko arrazoiak? Ideia onak izan dira?: nola erreakzionatu du jendeak proposamenen aurrean? Zuk horrelako bidaiak egin dituzu?**